


Euskal AEko industriako prezioek % 2,7 egin dute behera 2022ko uztailean, aurreko hilaren aldean

2021eko uztailarekin alderatuta, industriako prezioek % 23,3 egin dute gora

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko industriako prezioek % 2,7 egin dute behera 2022ko uztailean, aurreko hilaren aldean. Uztaileko urte arteko tasa, zeinek azken hamabi hilabeteetan industria-prezioek izandako aldakuntza laburbiltzen baitu, % 23,3koa izan da.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Azterketa xeheago batek agerian uzten du ezen, 2022ko uztailean, sektore hauek izan dituztela hazkunderik nabarmenenak prezioetan, aurreko hilaren aldean: *Industria kimikoa* (% 2,5), *Kautxua, plastikoa eta beste produktu mineral ez-metalezko batzuk* (% 1,0) eta *Ura* (% 0,9). Aitzitik, prezioetan hilabete arteko jaitsierarik handienak izan dituzten sektoreak hauek izan dira: *Kokeriak eta petrolio*

fintzea (% 9,0ko jaitzierarekin), *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 4,5ekoarekin) eta *Erauzketa-industriak* (% 2,6koarekin).

Ondasunen helburu ekonomikoaren araberrako sailkapenari jarraituz, Kontsumo-ondasunetan prezioak ez dira aldatu 2022ko ekainarekin alderatuta, ez Kontsumo-ondasun iraunkorretan, ez Kontsumo-ondasun ez-iraunkorretan. Bitarteko ondasunen prezioak, aldiz, % 1,2 jaitsi dira, eta ekipo-ondasunenak % 0,3. Azkenik, Energiaren prezioak % 7,3 jaitsi dira.

Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Uztaila 2022

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m / m-1	m / m-12
INDIZE OROKORRA	134,7	-2,7	23,3
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	110,1	-2,6	5,5
Manufaktura-industria	130,7	-2,3	19,4
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	120,5	0,1	12,5
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	101,6	-0,8	1,9
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	136,6	0,3	23,9
Kokeak eta petrolio fintzen	184,0	-9,0	65,3
Industria kimikoa	153,4	2,5	29,5
Botiken fabrikazioa	120,4	0,1	8,9
Kaubu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	109,4	1,0	9,5
Metalurgia eta produktu metalikoak	140,7	-2,5	21,8
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	120,8	-0,2	8,3
Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa	112,7	0,0	5,0
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	109,0	0,2	5,0
Garraiorako materialen fabrikazioa	105,3	-0,4	-0,1
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	111,2	-0,4	2,3
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	159,7	-4,5	48,2
Ura	122,2	0,9	10,1
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	118,9	0,0	10,3
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	111,0	0,0	4,2
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	120,3	0,0	11,2
Ekipo-ondasunak	112,2	-0,3	4,3
Bitarteko ondasunak	131,9	-1,2	19,0
Energia	175,8	-7,3	58,3

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2021eko Abenduaren 20a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

Urte arteko terminoetan, 2022ko uztailean 2021eko uztailaren aldean, prezio-hazkunderik handienak honako adar hauetan izan dira: *Kokeriak eta petrolioa fintzea* (% 65,3ko igoera), *Energia elektrikoa, gasa eta lurrina* (% 48,2ko igoera) eta *Industria kimikoa* (% 29,5koa). Urte arteko terminoetan prezioetan jaitsiera izan duen sektore bakarra *Garraio-materialaren fabrikazioa* izan da, % 0,1 jaitsi baita.

Ondasun-talde handietarako prezioen urte arteko aldakuntza, helburu ekonomikoaren arabera, positiboa izan da guztientzat: *Energiaren* prezioak % 58,3 igo dira, *Bitarteko ondasunenak* % 19,0 eta *Ekipo-ondasunenak* % 4,3. *Kontsumo-ondasunek*, orotara, % 10,3ko hazkundera izan dute, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioek % 11,2ko igoera izan dutelako, eta *Kontsumo-ondasun iraunkorren* prezioak % 4,2 igo direlako.

INFORMAZIO OHARRA

Eustatek eskerrak ematen dizkie lagundu duten establezimendu guztiei eginiko ahaleginagatik. Haiei esker, uztaileko indizea laginaren % **87,4ko** estaldurarekin kalkulatu da (laginaren informazioa uztailean eta abuztuan zehar jaso da).

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62